Codirige junto con Isa Calderón el late night y podcast cultural *Deforme Semanal*, galardonado con dos Premios Ondas.

© Barry Domínguez



**Brenda Navarro**
—
**Soziologoa, ekonomialaria eta idazlea**
**Socióloga, economista y escritora**

Soziologian eta Ekonomia Feministan trebatua. Erredaktorea, gidoilaria, erreportaria eta editorea izan da, eta giza eskubideekin lotutako hainbat GKEtan lan egin du.

Bere lehen eleberriak, *Casas vacías* (Sexto Piso, 2019) izenekoak, XLII Tigre Juan Saria irabazi zuen eta hamar hizkuntzatara itzulita dago. *Ceniza en la boca* (Sexto Piso, 2022) izeneko azken lanean, desberdintasuna, xenofobia, deserrotzea eta antzeko gaiak jorratzen ditu, eta hamar hizkuntzatara itzultzen ari dira.

Formada en Sociología y Economía Feminista, ha sido redactora, guionista, reportera y editora.

*Casas vacías* (Sexto Piso, 2019), su primera novela, fue premiada con el XLII Premio Tigre Juan y traducida a diez idiomas. En su última obra *Ceniza en la boca* (Sexto Piso, 2022) aborda cuestiones esquivas como la desigualdad, la xenofobia o el desarraigo, que está siendo traducido a diez idiomas.

# SOLASALDIA / CONVERSACIÓN

*El cuerpo cuenta*

**02/03**
LARUNBATA
SÁBADO

AUDITORIOA
AUDITORIO

conversación - solasaldia -

## Nadal Suau
—
## Mar García Puig
—
## Azahara Alonso

Nadal Suau, Mar García Puig eta Azahara Alonsok gorputzaz, azalaz, generoaz, bizitzaz kontatzen dute. Begi-bistakoarekin hasi eta politikak eta kulturak ezkutuan eduki behar izan duten horretaraino. Jakinik egia aldi berean dagoela sakonenean eta epidermisean. Idazteko edo tatuatzeko, pentsatzeko eta gozatzeko, maitatzeko eta gorrotatzeko, erditzeko eta uko egiteko egintzan, ohiz kanpokoan eta egunerokotasunean, ekintza intimoetan eta sozialetan.

Nadal Suau, Mar García Puig y Azahara Alonso narran y cuentan el cuerpo, la piel, el género, la vida. Desde lo evidente hasta aquello que la política o la cultura han tenido a bien mantener en lo oculto. Sabiendo que la verdad está, a la vez, en lo más profundo y en la epidermis. En el acto de escribir o tatuarse, pensar y disfrutar, amar y odiar, parir y renunciar, en lo extraordinario y en lo cotidiano, en los actos íntimos y en los sociales.



**Nadal Suau**
—
**Saiakeragilea, literatura-kritikaria eta irakaslea**
**Ensayista, crítico literario y profesor**

Saiakerako Anagrama Saria irabazi berri du *Curar la piel* (Anagrama, 2023) lanarekin. Bertan, tatuajea aztertzen du, marjinalitatearen lengoaia zena nola bilakatu den pasarte biografikorik aipagarrienak gorputzean idazteko molde.

Acaba de ganar el Premio Anagrama de Ensayo con *Curar la piel* (Anagrama, 2023), donde aborda el paso del tatuaje como lenguaje de la marginalidad a escritura en el cuerpo de los más señalados episodios biográficos.

*La historia de los vertebrados* (Random House, 2023) kontakizunaren egilea da. Lan horrek 2015eko abenduan du abiaburua, ama izan zen eta, aldi berean, Kongresuko diputatu hautatu zuten egunean. Dena batera gertatzeak –bikien jaiotzak eta boto-emaileak ordezkatzeko eginkizunak– antsietatea piztu zion.

Es la autora de *La historia de los vertebrados* (Random House, 2023), relato que parte del día de diciembre de 2015 en que fue madre y a la vez salió elegida diputada en el Congreso, una confluencia de acontecimientos -el nacimiento de sus mellizos y representar a aquellos que le habían votado- que le llevó a la ansiedad.



© Rita Puig-Serra

**Mar García Puig**
—
**Filologoa, editorea eta politikaria**
**Filóloga, editora y política**



**Azahara Alonso**
—
**Filosofoa, idazlea eta literatura-kritikaria**
**Filósofa, escritora y crítica literaria**

Azken hilabeteetako egilerik irakurrienetako bat izan da *Gozo* (Siruela, 2023) liburuari esker. Bertan, hausnarketa egiten du lanaz eta haren faltaz, denboraren politikaz, turismoaren erasoez, benetakoa izateko nahiaz eta gaur egungo beste hainbat aginduz.

Se ha convertido en una de las autoras más leídas de los últimos meses gracias a *Gozo* (Siruela, 2023), una reflexión sobre el trabajo y su falta, la política del tiempo, los envites del turismo, el deseo de autenticidad y tantos otros mandatos contemporáneos.

# SOLASALDIA / CONVERSACIÓN

*Conversación sobre la conversación*

**02/03**
LARUNBATA
SÁBADO

BASTIDA ARETOA
SALA BASTIDA

conversación - solasaldia -

# Marta Sanz
—
# Luis López Carrasco

Nobelan zein zineman, Sanzek eta López Carrascok ezaugarri komun bat dute, beste askoren artean: biak ala biak gai dira kulturaren munduan sarritan pixelatuta agertzen dena hurbiltzeko. Horrela, protagonismoa ematen diete prekarietateari (lanean eta bizitzan), ustelkeriari, sistema aldaezin eta zalantzagarri batean fikziozkoa eta utopikoa denari.

Tanto en la novela como en el cine, Sanz y López Carrasco comparten, entre muchas otras, una característica común: en ambos casos son capaces de acercar aquello que, a menudo, aparece pixelado en el mundo de la cultura. Así conceden protagonismo a cuestiones como la precariedad (en el trabajo y en la vida), la corrupción, lo ficticio y utópico de un sistema inmutable e incierto.


© Maria Rapela

**Marta Sanz**
—
**Filologoa eta idazlea**
**Filóloga y escritora**

Narratibako Ojo Crítico saria lortu zuen 2001ean *Los mejores tiempos* (Debate, 2000) lanarekin, Nadal Sariko finalista izan zen 2006an *Susana y los viejos* (Destino, 2006) lanarekin eta Herralde Eleberri Saria eskuratu zuen 2016an *Farándula* (Anagrama, 2015) lanarekin. Bere azken lana *Persianas metálicas bajan de golpe* (Anagrama, 2023) da, eleberri distopikoa, oraina kritikoki irudikatzeko zientzia fikzioa erabiltzen duen joko literario erradikala.

Premio Ojo Crítico de Narrativa 2001 por *Los mejores tiempos* (Debate, 2000), finalista del Premio Nadal 2006 por *Susana y los viejos* (Destino, 2006), y Premio Herralde de Novela 2016 por *Farándula* (Anagrama, 2015). Su última obra es *Persianas metálicas bajan de golpe* (Anagrama, 2023), una novela distópica, un radical juego literario en el que utiliza la ciencia ficción para retratar críticamente el presente.



**Luis López Carrasco**
—
**Zinegilea eta idazlea**
**Cineasta y escritor**

Bere azken filma, *El año del descubrimiento* (2020), Rotterdameko Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen, eta, besteak beste, film dokumentalik onenaren eta muntaketa onenaren Goya sariak irabazi ditu. 2023an Herralde Saria irabazi zuen *El desierto blanco* (Anagrama, 2023) lanarekin, zeina arrotz diren denbora eta espazio batetik ikusitako belaunaldi bati buruzkoa den.

Su última película, *El año del descubrimiento* (2020), se estrenó en el Festival Internacional de Cine de Rotterdam y ha ganado, entre otros, el Premios Goya a mejor película documental y mejor montaje. En 2023 ganó el Premio Herralde de novela con la obra *El desierto blanco* (Anagrama, 2023), sobre una generación vista desde un tiempo y un espacio ajenos.

# SOLASALDIA / CONVERSACIÓN

*Las palabras, el cuerpo, la memoria*

**02/03**
LARUNBATA
SÁBADO

AUDITORIOA
AUDITORIO

conversación - solasaldia

## Juan Mayorga
—
## Pedro Barea
—
## Patxi Lanceros

Juan Mayorga antzerkigileak premiazkoa eta egungoa landu du bere obran, hausnarketa zabalago baten gai bilakatuta. Mayorgak proposatzen duen antzerkiak parte hartzen du, eragiten du, pentsatzera eta antzeztera gonbidatzen du; beraz, agertokiaren mugak gainditzen dituen antzerkia da.

Horregatik, aurtengo BBK Gutun Zuria Saria jasoko duen egile hau hizketan arituko da jaialdian Pedro Barea antzerki-kritikariarekin eta Patxi Lanceros filosofoarekin.

El dramaturgo Juan Mayorga ha transformado en su obra lo urgente y actual en materia de una reflexión más amplia. Mayorga propone un teatro que interviene, provoca, invita a pensar y a actuar; un teatro que transciende por tanto los límites del escenario.

De ahí que el Premio BBK Gutun Zuria Bilbao de este año converse en el festival con el crítico teatral Pedro Barea y con el filósofo Patxi Lanceros.



**Juan Mayorga**
—
**Antzerkigilea**
**2022ko Letren Asturiasko Printzesa Saria**
Dramaturgo
Premio Princesa de Asturias de las Letras 2022

Antzerkigilea da, eta Arte Eszenikoen Katedraren eta Antzerki Sorkuntzako Masterraren zuzendaria ere bai (Carlos III.a Unibertsitatea, Madril). 2022an Letren Asturiasko Printzesa Saria jaso zuen. Madrilgo Abadiako Antzokiko eta Alcalá de Henaresko Corral de Comedias-eko zuzendaria da.

Dramaturgo y director de la Cátedra de Artes Escénicas y del Máster en Creación Teatral (Universidad Carlos III, Madrid). En 2022 recibió el Premio Princesa de Asturias de las Letras. Es director del Teatro de la Abadía de Madrid y del Corral de Comedias de Alcalá de Henares.

60ko hamarkadan UPV/EHUko Ekonomia Fakultateko *Facultad eta Sarrico* aldizkariak egin zituzten ikasle-taldeko kidea izan zen. Antzerkiari eta ikus-entzunezko narratibari buruzko tesiak zuzendu ditu. Antzerki-kritika egin eta informazioa ematen du kultura-aldizkarietan eta argitalpen profesionaletan, esaterako, El Correo egunkarian eta *Territorios* izeneko bere astekarian.

Fue parte del equipo de estudiantes que realizó en los años 60 las revistas *Facultad y Sarrico*, de la Facultad de Económicas (UPV/EHU). Ha dirigido tesis sobre teatro y narrativa audiovisual. Hace crítica e información teatral en revistas culturales y publicaciones profesionales como El Correo y su semanario *Territorios*.



**Pedro Barea**
—
**Kazetaria, antzerki-kritikaria, UPV/EHUko katedraduna**
Periodista, crítico teatral, catedrático de la UPV/EHU



**Patxi Lanceros**
—
**Filosofian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea**
Doctor en Filosofía y profesor en la Universidad de Deusto

Patxi Lanceros Filosofia politikoan eta Estetikan espezializatuta dago. Mintegiak eta hitzaldiak eman ditu gai horiei buruz, eta artikulu ugari idatzi ditu aldizkari espezializatuetan eta argitalpen kolektiboetan. Bere liburuen artean honako hauek aipa daitezke: *Fuera de la ley. Poder, justicia y exceso* (Abada Editores, 2012); eta *Orden sagrado, santa violencia* (Abada Editores, 2014).

Está especializado en la Filosofía política y la Estética. Ha impartido seminarios y conferencias sobre esas materias y cuenta en su haber con numerosos artículos en revistas especializadas y publicaciones colectivas. Entre sus libros cabe citar: *Fuera de la ley. Poder, justicia y exceso* (Abada Editores, 2012); y *Orden sagrado, santa violencia* (Abada Editores, 2014).

# AURKEZPENAK / PRESENTACIONES

02/03
LARUNBATA
SÁBADO

BASTIDA ARETOA
SALA BASTIDA

LIBURUAREN AURKEZPENA / PRESENTACIÓN DEL LIBRO

## *Titiritari*
## Miren Amuriza, Iñigo Astiz, Malen Amenabar




*Titiritari* poema-liburu ilustratua haurrei eta helduei zuzenduta dago. Irakurtzeko, kantatzeko, jolasteko liburu bat da. Testuek eta irudiek Portal 71k eta Anita Maravillasek elkarrekin egindako antzerki-ibilbidea dute abiaburu.

Aurkezpenean, Miren Amuriza idazlea eta Malen Amenabar ilustratzailea lan honetaz arituko dira, eta, gainera, hizpide izango dute literatura eta antzerkia, bilaketa eta esperimentazioa, txotxongiloak, hariak eta titiriteroak, Iñigo Astiz kazetari eta idazleak gidatutako elkarrizketan.

*Titiritari* es un libro de poemas ilustrado, tanto para público infantil como adulto. Un libro para leer, cantar, jugar. Tanto los textos como las imágenes parten de una trayectoria teatral conjunta de Portal 71 y Anita Maravillas.

En su presentación, la escritora Miren Amuriza y la ilustradora Malen Amenabar hablarán de este trabajo y también de literatura y teatro, de búsqueda y experimentación, de títeres, de hilos, de titiriteros y titiriteras, en una conversación guiada por el periodista y escritor Iñigo Astiz.

HITZALDIA ETA LIBURUAREN AURKEZPENA / CONFERENCIA Y PRESENTACIÓN DEL LIBRO

## *La ola en la mente*
## Isabel de Naverán, Lorea Alfaro

*La ola en la mente* Isabel de Naveránek 2021 eta 2023 bitartean Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa egin duen proiektuaren emaitza da. Proiektuaren ardatza idazketa somatikoa da, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa. Lorea Alfaro artistarekin izandako elkarrizketa saiakera poetiko bat da. Bertan, testuak eta irudiak korapilatzen dira, galdetzeko eragiten digun horrek —eszena batek, emozio batek— nola tenkatzen dituen lanaren eta bizitzaren arteko harremanak, eta keinu batzuek nola hartzen duten forma berri bat hizkuntzaren mugarekin zuzenean topatzean.

Topaketa hau eskuragarriri egongo da *La ola en la mente* argitalpenean, Azkuna Zentroak argitaratutako liburu koralaren. Saiakeraren eta kontakizun literarioaren artean dauden testuen polifonia bat biltzen du, eta testuak bost emakumeren ikerketen emaitza dira, Isabel de Naveránek haiekin hitz egin baitu ikerketa honen esparruan.

*La ola en la mente* es el resultado del proyecto que Isabel de Naverán ha realizado como Investigadora Asociada a Azkuna Zentroa entre 2021 y 2023, centrado en la escritura somática como forma de escucha y curaduría. Su conversación con la artista Lorea Alfaro es un ensayo poético en el que se entrelazan textos e imágenes para preguntarse acerca de cómo aquello que nos afecta —una escena, una emoción— tensa las relaciones entre el trabajo y la vida; y de qué manera algunos gestos toman una nueva forma en su encuentro directo con el límite del lenguaje.

En este encuentro estará disponible la publicación *La ola en la mente*, el libro coral que publica Azkuna Zentroa y que reúne textos que navegan entre el ensayo y el relato literario, fruto de las indagaciones de cinco mujeres con las cuales Isabel de Naverán ha mantenido conversación en el marco de esta investigación.



# TERTULIAK / TERTULIAS

**28/02** ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

## *Novela gráfica e ilustración*
## Fran Mengual, Lisa Blumen Pascale Sévigny-Vallières

Komikiaren Nazioarteko Egoitza
Residencia Internacional del Cómic

Topaketa honetan Fran Mengual, Lisa Blumen eta Pascale Sévigny-Vallièresek parte hartuko dute. Gaur egun, Komikiaren Nazioarteko Egonaldian daude hirurak, Azkuna Zentroak, Quebeceko Maison de la Littérature-k eta Angulemako Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image-k batera antolatutako ekimenean.

En este encuentro participarán Fran Mengual, Lisa Blumen y Pascale Sévigny-Vallières, quienes desarrollan actualmente la Residencia Internacional del Cómic, una iniciativa compartida por Azkuna Zentroa, la Maison de la Littérature de Quebec y la Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image de Angoûleme.

tertuliak

**29/02** OSTEGUNA / JUEVES

## *Inteligencia artificial*
## Jorge Carrión

Jorge Carrión humanitateetan doktorea eta idazlea da. Bere azken eleberrietako batean, *Membrana* (Galaxia Gutenberg, 2021) izenekoan, adimen artifizialaren kideko lengoaia bat erabiltzen du botere teknologikoaren erraiak aztertzeko. *Librerías* (Anagrama, 2013) liburuaren egilea ere bada. Hor, ibilaldi bat egiten du kultura eta komunikaziorako gune horietan barrena, munduan dituzten lokal seinalatuenetara joz, eta hausnarketa egiten du iruditeria kolektiboan duten zereginaz.

Jorge Carrión es doctor en humanidades y escritor. *Membrana* (Galaxia Gutenberg, 2021), una de sus últimas novelas, utiliza un lenguaje afín a la inteligencia artificial para examinar las entrañas del poder tecnológico. Esta también autor de *Librerías* (Anagrama, 2013), un paseo por estos espacios de cultura y comunicación a través de sus más señalados locales en el mundo, y una reflexión sobre su papel en el imaginario colectivo.

**01/03** OSTIRALA / VIERNES

## *Teatros del futuro*
## Isaac Rosa, Natalia Balseiro

*Teatros del futuro* fabula espekulatiboen bilduma bat da, antzokietarako etorkizun posibleei buruzkoa, antzokietatik abiatua. Natalia Balsero ikertzaile, kuradore eta kultura-bitartekariak zuzendutako proiektu honen bidez, besteak beste, gonbit egin zaie artistei eta idazleei Estatuko arte biziei lotutako bost proiektu inspiratzaileri buruz idaztera.
Gune inspiratzaile horietako bat Azkuna Zentroa da, eta Isaac Rosa idazlea izan da kontalaria, *Simuladores de vuelo* fabularekin.

*Teatros del futuro* es una colección de fábulas especulativas sobre futuros posibles para y desde los teatros. A través de este proyecto dirigido, entre otras, por Natalia Balsero, investigadora, curadora y mediadora cultural, se ha invitado a artistas-escritoras a escribir sobre cinco proyectos inspiradores en relación a las artes vivas del territorio estatal.
Uno de estos espacios inspiradores es Azkuna Zentroa y su relator ha sido el escritor Isaac Rosa con la fábula *Simuladores de vuelo.*

# IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS

dantza - danza


© Alice Brazzit

**02/03** LARUNBATA SÁBADO

DANTZA / DANZA

## *Antes que caiga la noche* Gaston Core

eszenAZek, Azkuna Zentroaren Arte Bizien Denboraldiak, bat egingo du Gutun Zuria Bilbaorekin, dantza, hip hop eta rapa uztartuz Gaston Corek Euskadin estreinatuko duen *Antes que caiga la noche* ikuskizunean. Koreografo argentinarraren azken sorkuntza epopeia greziarraren berrirakurketa bat da, garaikidetasunetik egina, rap-gatazka bihurtua.

Koreografo eta antzerki-sortzaileak honela definitzen du obra: «Mendebaldeko literaturaren sorrerako obrarekiko begirada eszenikoa eta gogoeta estetikoa, rap hizkuntzaren eta hip-hop kulturaren bidez egina». Piezak transmititzen du testu horretan hitzak duen indarra, historian duen garrantzia, bere baliabide narratiboen eta lantzen dituen gaien modernitatea.

eszenAZ, la Temporada de Artes en Vivo de Azkuna Zentroa, confluye con Gutun Zuria Bilbao en *Antes que caiga la noche*, el espectáculo de danza, hip hop y rap que estrena en Euskadi Gaston Core. La última creación del coreógrafo argentino es una relectura *La Ilíada* desde la contemporaneidad, reconvertida en una batalla de rap.

Gaston Core define la obra como «una mirada escénica y una reflexión estética a la obra fundacional de la literatura occidental mediante el lenguaje del rap y de la cultura hip hop». La pieza transmite la fuerza de la palabra en este texto, su importancia en la historia, la modernidad de sus recursos narrativos y de los temas que trata.

© Alice Brazzit


**Gastón Core**

—

**Koreografoa, antzerki-sortzailea, komisarioa eta zuzendari artistikoa**
Coreógrafo, creador teatral, comisario y director artístico

Koreografoa, antzerki-sortzailea, komisarioa eta zuzendari artistikoa. Buenos Airesen jaioa, interprete gisa trebatu zen eta ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen Buenos Airesko Unibertsitatean. Centre d’Arts Escèniques de Terrassak ekoiztutako jaialdi bat zuzendu du, eta komisario gisa parte hartu du hainbat proposamenetan.

Koreografo gisa, *El díptico del desierto* konposizioa zuzendu du, pieza solista bat (The Very Last Northern White Rhino) eta taldeko pieza bat (Chorus) dituena.

Coreógrafo, creador teatral, comisario y director artístico. Nacido en Buenos Aires, se formó como intérprete y estudió comunicación audiovisual en la Universidad de Buenos Aires. Ha dirigido un festival producido por el Centre d’Arts Escèniques de Terrassa y ha colaborado como comisario en diversas propuestas.

Como coreógrafo, ha dirigido la composición titulada *El díptico del desierto*, formada por una pieza solista (The Very Last Northern White Rhino) y una pieza grupal (Chorus).

**01/03** OSTIRALA
VIERNES

PROIEKTUAREN AURKEZPENA / PRESENTACIÓN DEL PROYECTO

## *Eras*
## Pablo Marte

«ERAS poemak, amaitzeko bidean, marrazki, irudi, liburu-azal, objektu eta testuz eratutako instalazio baten itxura hartzen du hemen.

Instalazioak bi bidetan zeharkatzen du poema, poema uharte bolkaniko bat balitz bezala. Bide dokumentala, baita autobiografikoa ere, itsasaldekoa da, eta iparraldetik hegoaldera inguratzen du uhartea. Poema “ikusi” nahi duenak (ez irakurri, ikusi) hamaika aukera aurkituko ditu bide honetan gelditu eta gozatzeko ikusmira onez, itsasoaz, itsaslabarrez, hondartza txikiez, herrixkez eta, une oro, sumendiaren irudiaz. Aitzitik, instalazioa “irakurri” nahi duenak (ez ikusi, irakurri) beste bide bat du, nik stromboliarra deituko nukeena, eta kraterraren gailurreraino igotzen da».

«ERAS es un poema que, en tránsito a su conclusión, adopta aquí la forma de una instalación de dibujos, imágenes, portadas de libros, algunos objetos y texto.

La instalación recorre el poema en dos caminos, como si el poema fuera una isla volcánica. El camino documental, e incluso autobiográfico, es el de la costa y bordea la isla de norte a sur. Quien quiera “ver” el poema (no leerlo, verlo) encontrará por este camino innumerables ocasiones para detenerse y disfrutar de buenas vistas, el mar, los acantilados, las pequeñas playas, los pueblitos y, en todo momento, la efigie del volcán. Quien por el contrario desee “leer” la instalación (no verla, leerla) tiene otro camino, que yo llamaría stromboliano y sube hasta la cresta misma del cráter».



**Pablo Marte**
—
**Artista**



**29/02–02/03**

ANTZERKIA / TEATRO

## *Desiderata*
## Mama Crea

Elkarrizketa gainezkatua zuzeneko eta partekatutako esperientzia bihurtzen da *Desiderata* lanean. Ospitale honetan, liburuak pazienteak dira eta sendabidea ikaskuntza da. Mama Crea eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren ekoizpen eszeniko honek dei egiten du liburuen garrantziaz hausnartzeko, irakurtzeko eta idazteko espazioak eta objektuak mimatuz.

Hala, arte-edukiontzi hau aukera paregabea da bertaratutakoek irakurketaren edertasuna eta boterea deskubritu ditzaten, eta jakin dezaten sendatzeko eta hazkunde pertsonalerako tresna bat izan daitekeela. Gainera, trebetasun baliagarriak eta lagungarriak ikasiko dituzte liburuak konpontzeko, gero beren egunerokotasunean aplikatzeko modukoak.

La conversación desbordada se torna experiencia en vivo y compartida a través de *Desiderata*, el hospital donde los libros son los pacientes y la cura es el aprendizaje. Esta producción escénica de Mama Crea y Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao es una llamada a la reflexión sobre la importancia de los libros, mimando los espacios y objetos de lectura y escritura.

Este contenedor de arte es así una oportunidad única para que las personas asistentes descubran la belleza y el poder de la lectura, y cómo puede ser una herramienta para la curación y el crecimiento personal. Además, aprenderán habilidades útiles y prácticas sobre cómo reparar libros que después podrán aplicar a su día a día.

**GUTUN ZURIA + PRO**

*Nola egiten dieten aurre argitaletxeek teknologia berrien erronkei.*

*Cómo afronta el mundo editorial los retos de las nuevas tecnologías.*

lehenego edizioa - primera edición -
GZ +PRO

# Gutun Zuria +PRO

## Liburuaren eta hitzaren jardunaldi profesionalak
## Jornadas profesionales del libro y la palabra

Gutun Zuria Bilbao. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia urteroko topagunea da, literaturak arte garaikidearen sistemarekin duen harremanaz jarduteko. *Berba dariola* izenburupean, 2024ko edizioa mugarik eta aukera-mugarik gabeko lurralde gisa planteatzen da, hitza eta topaketa ardatz gisa hartuta.

Aurten, Gutun Zuria Bilbaoren esparruan, Gutun Zuria +PRO sortu da, liburuaren mundu profesionalari zuzendutako gune berria: liburu-saltzaileak, editoreak, idazleak, banatzaileak, itzultzaileak, ilustratzaileak, jaialdietako arduradunak eta kultura-instituzio publikoak… Liburuaren kateko eragileek, urtero, gaurkotasuneko hainbat galdera eta eztabaida zirriborratuko dituzte, pentsamendu kritiko batetik abiatuta.

Lehen edizio honetan, Gutun Zuria +PROk planteatuko du nola egiten dieten aurre argitaletxeek teknologia berrien erronkei, maila guztietan. Esperientzia-mahaien formatuan, bi egunetan, erronka horiek jorratu eta landuko dituzte publikoarekin, adimen artifizialaren erabilerari eta hainbat arlotako aurrerapen teknologikoei buruz: komunikazioa, itzulpena, banaketa, egile-eskubideak, bibliotekak eta liburu-dendak.

Gutun Zuria Bilbao. Festival Internacional de las Letras es el punto de encuentro anual en torno a la literatura en relación con el sistema del arte contemporáneo. Bajo el título *Berba dariola*, la edición de 2024 se plantea como un territorio sin fronteras ni límites de posibilidades, con la palabra y el encuentro como ejes centrales.

En este marco surge este año Gutun Zuria +PRO, un nuevo espacio dirigido al mundo profesional del libro: libreros/as, editores/as, escritores/as, distribuidores/as, traductores/as, ilustradores/as, responsables de festivales o instituciones públicas culturales… Agentes de la cadena del libro en el que cada año se esbozarán diversas cuestiones y debates de actualidad desde un pensamiento crítico.

En esta primera edición Gutun Zuria +PRO plantea cómo afronta el mundo editorial los retos de las nuevas tecnologías, en sus diferentes niveles. En formato de mesas de experiencia, durante dos días, se abordarán y compartirán con el público estos desafíos sobre el uso de la inteligencia artificial y los avances tecnológicos diversos desde diferentes ámbitos: la comunicación, la traducción, la distribución, los derechos de autor, las bibliotecas y las librerías.

**28/02**
ASTEAZKENA
MIÉRCOLES

BASTIDA ARETOA
SALA BASTIDA

## Komunikazioa — Comunicación

Komunikazioak, liburuaren kate osoan zeharkako denak, teknologiaren eragina izan du beti. Gaur egun, tradizionalagotzat jotzen diren formatuak ditugu, esaterako, prentsa idatzia, eta garaikideagoak ere bai, sare sozialak euskarri gisa erabiltzen dituztenak. Aldi berean, asko eztabaidatzen da adimen artifizialak ingurune horietan guztietan, maila teknikoan zein deontologikoan, izango duen eraginaz.

La comunicación, transversal a toda la cadena del libro, siempre se ha visto afectada por la tecnología. Hoy en día conviven formatos considerados más tradicionales, como la prensa escrita, con otros más contemporáneos que utilizan las redes sociales como soporte. Al mismo tiempo, se abren muchos debates sobre cómo la inteligencia artificial afectará a todos estos medios, tanto a nivel técnico como deontológico.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Irene Intxausti.** Teklak. Komunikazio eta audientzien estudioa / Estudio de Comunicación y Audiencias

**Iñaki García.** Lin3s. Kontsultore digitala / Consultora digital

**Patricia Ventura.** AAri buruzko komunikazio- eta ikerketa-aholkularia / Consultora de comunicación e investigadora sobre IA

**Elena Neira.** Komunikazioko ikasketen irakaslea Kataluniako Unibertsitate Obertean -UOC / Profesora de los estudios de comunicación en la Universitat Oberta de Cataluny-UOC

## Itzulpena — Traducción

Teknologia berriek aldatzen eta birbideratzen dute itzulpena, liburuaren munduan ezinbestekoa den lanbidea. Asko eztabaidatzen da adimen artifizialak dagoeneko itzulpen-lanean duen eraginaz, eta horrek lege, kontratu, lan-modu eta lan-baldintza aldetik dituen ondorioez.

Las nuevas tecnologías alteran y reconducen la profesión de la traducción, indispensable en el mundo del libro. Hay muchos debates sobre cómo la inteligencia artificial está influyendo ya en el trabajo de traducción y cómo leyes, contratos, formas de trabajo y condiciones laborales se están viendo afectadas por ello.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Karlos del Olmo.** Idazlea, itzultzailea eta interpretea, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (EIZIE) kidea / Escritor, traductor e intérprete, miembro de Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea (EIZIE)

**Antonio Moreno Sandoval.** Informatikako Hizkuntzalaritza Laborategiko (UAM) zuzendaria / Director del Laboratorio de Lingüística Informática (UAM)

**Nora Aranberri.** EHUko irakaslea eta itzulpen automatikoan aditua / Profesora de la EHU/ UPV y experta en traducción automática

**Irene Larraza.** Etxepare Euskal Institutua zuzendaria / Directora de Etxepare Euskal Institutua

## Banaketa — Distribución

Banaketak funtsezko garrantzia du argitalpen-ekoizpenean, eta asko aldatzen da testuinguruen arabera. Nolanahi ere, lan honek prozesu teknologikoak eta berrikuntza handia behar ditu. Gainera, aldi berean ditugu paperezko liburuaren banaketa eta garaikideagoak diren beste formatu batzuen banaketa, adibidez, audioliburuarena.

La distribución tiene un papel crucial en la producción editorial y varía mucho según contextos. Es de todas formas, una labor que requiere de procesos tecnológicos y de mucha innovación. Convive además la distribución del libro en papel con la distribución de otros formatos más contemporáneos como el audiolibro.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Verónica García.** Machado Grupo de Distribución zuzendaria / Directora de Machado Grupo de Distribución

**Maribel Riaza.** Content Acquisition Storytel

**Daniel Benchimol.** 451 Proiektuaren zuzendaria eta argitalpen-industriako aholkularia estrategia digitalen arloan / Director de Proyecto451 y consultor de la industria editorial en materia de estrategias digitales

**Blanca Sotos.** MiraLookBooks argitalpen-azokaren arduraduna / Responsable de la feria de publicaciones MiraLookBooks

29/02

OSTEGUNA
JUEVES

BASTIDA ARETOA
SALA BASTIDA

## Egile-eskubideak
—
## Derechos de autor

Sorkuntza eta egiletza eskutik hartuta doaz. Askotan, egiletza da liburuaren kateko kate-mailarik ahulena. Teknologia berriek eragina dute eskubide horien ikusmoldean, eta legeek azkar egokitu behar dute aldaketetara. Adimen artifizialaren ondorioz, titular eztabaidatuak eta beharrezko eztabaidak izan dira horri buruz.

La creación y la autoría van de la mano. Muchas veces la autoría es el eslabón más débil de la de la cadena del libro. Las nuevas tecnologías van afectando la concepción de esos derechos y las leyes deben correr para adaptarse a los cambios. La inteligencia artificial está provocando polémicos titulares y necesarios debates al respecto.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Mercedes Morán.** Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroko (CEDRO) abokatua / Abogada del Centro Español de Derechos Reprográficos (CEDRO)

**Santiago Mediano.** Jabetza intelektualean espezializatutako abokatua / Abogado especializado en propiedad intelectual

**Igor Estankona.** Euskal Kulturgileen kidegoa (EKKI)

## Bibliotekak
—
## Bibliotecas

Liburutegien zeregin demokratikoa funtsezkoa da liburuaren munduan irisgarritasuna bermatzeko. Aldaketa teknologikoek eragina dute biltegiratzeko, gordetzeko, erakusteko eta hainbat hizkuntza kulturaletara sarbidea izateko aukeretan.

El papel democrático de las bibliotecas es fundamental para asegurar la accesibilidad en el mundo del libro. Los cambios tecnológicos afectan a las posibilidades de almacenar, guardar, mostrar y dar acceso a distintos lenguajes culturales que van adoptando distintos formatos.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Alicia Sellés.** Liburuzaina, dokumentalista, European Bureau of Library, Information and Documentation Associations (EBLIDA) erakundeko kidea / Bibliotecaria, documentalista, miembro de European Bureau of Library, Information and Documentation Associations (EBLIDA)

**Elena Sánchez Nogales.** Espainiako Biblioteka Nazionaleko (BNE) Berrikuntza eta Berrerabilpen Digitaleko zerbitzuburua/ Jefa del Servicio de Innovación y Reutilización Digital de la Biblioteca Nacional de España (BNE)

**Fernando Juárez.** Liburuzaina, ALDEEko kidea. Artxibo, Biblioteka eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea / Bibliotecario, presidente de ALDEE. Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación

**Lorena Fernández.** Deustuko Unibertsitateko komunikazio digitaleko zuzendaria / Directora de comunicación digital de la Universidad de Deusto

## Liburu-dendak
—
## Librerías

Liburu-dendek ezinbesteko garrantzia dute irakurleekiko harreman zuzenean. Gizartea teknologizatu eta sare sozialek bide gehiago hartu duten heinean, liburutegiak egokitu eta teknologia berri horiekin bizi dira. Aldi berean, antolatzen dira nazioarteko plataforma digital handiei aurre egiteko.

Las librerías tienen un papel crucial en la relación directa con el público lector. En la medida en la que la sociedad se ha tecnologizado y que las redes sociales ganan camino, las librerías se adaptan y conviven con estas nuevas tecnologías. Al mismo tiempo se organizan para hacer frente a las grandes plataformas digitales internacionales.

**Parte-hartzaileak / Participan:**

**Jesús Trueba.** Liburu-saltzailea (Buena Vida liburu-denda) eta Gremioen eta Liburu-saltzaileen Elkarteen Espainiako Konfederazioko (CEGAL) kidea / Librero (Librería Buena Vida) y miembro de Confederación Española de Gremios y Asociaciones de Libreros (CEGAL)

**José Antonio Ruiz de la Torre.** Luces de Málaga liburu-dendako zuzendaria eta todostuslibros.com webgunearen sortzailea / Director de la librería Luces de Málaga y creador de la web todostuslibros.com

**Nerea Fillat.** Katakraken bultzatzailea. Liburu-denda eta argitaletxea / Impulsora de Katakrak. Librería y editorial

# GUTUN ZURIA ZABALIK

15/04
ASTELEHENA
LUNES

*Zinzindurrunkarratz*

**Oskar Alegria**
—
Zinemagilea
Cineasta



GUTUN ZURIA ZABALIK

## Oskar Alegria

Jaialdiaren fokuak martxoaren 2an itzaliko dira, baina atea ez da itxiko, Gutun Zuria Zabalik ekimenaren bidez irekita jarraituko baitu. Letren eta letren hibridazioaren inguruko elkarrizketa-gune berria da Gutun Zuria Zabalik, eta urte osoan aktibatuko da.

Oskar Alegria zinemagileak inauguratuko du Gutun Zuria Zabalik, *Zinzindurrunkarratz* bere azken lana aurkeztuz. Ikus-entzunezko ibilbide poetiko bat da, behialako memoria batean barrena, haren zati batzuk baino geratzen ez direla.

Oskar Alegria, bere super-8az hornitua, aitona-amonek Artazuko mendietan (Nafarroa) ibilitako bidezidorretara itzuliko da, jada existitzen ez den mundu baten oihartzunak erregistratzera. Irudi mutu eta soinu itsuetatik abiatuta, filma eguneroko gisa eraikiko da. Izenburuak euskarazko ahoskera onomatopeiko bati egiten dio erreferentzia: brisa arin bat (zinzin), erortzen den harri bat (durrundurrun) eta tximista batek jotako gailur bat (kurruzkarratz).

Los focos del Festival se apagan el 2 de marzo pero Gutun Zuria Bilbao no cierra la puerta, sigue abierto a través de Gutun Zuria Zabalik, un nuevo espacio de conversación en torno a las letras y su hibridación con otras formas de creación contemporánea que se activa a lo largo de todo el año.

Inaugura Gutun Zuria Zabalik el cineasta Oskar Alegría con la presentación de su último trabajo *Zinzindurrunkarratz*, un recorrido audiovisual poético por una memoria de otro tiempo de la que sólo quedan fragmentos.

Oskar Alegria, pertrechado con su super-8, regresa a los senderos por los que caminaron sus abuelos, en las montañas de Artazu, en Navarra, para registrar los ecos de un mundo que ya no existe. A partir de imágenes mudas y sonidos ciegos, la película está construida a modo de diario. Su título hace referencia a la pronunciación onomatopéyica en euskera de una brisa ligera (zinzin), una piedra que cae (durrundurrun) y una cumbre golpeada por un rayo (kurruzkarratz).

# MASTER CLASS
# TAILERRAK / TALLERES

28/02 ASTEAZKENA
MIÉRCOLES

MASTER CLASS

## *Liburua: gizartea eraikitzeko adreilua*
## Patxi Zubizarreta

© Luis Magán



Patxi Zubizarreta idazleak, 2023ko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala jaso duenak, liburu bat sortzeko prozesua partekatuko du ikasleekin. Ideiaren sorreratik argitalpenerainoko prozesuan egiten diren urratsez hitz egingo digu Zubizarretak, adibide zehatz eta irudizkoekin.
Pello Ramirez musikariarekin.

**Patxi Zubizarreta**
—
**Idazlea. 2023ko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala**
**Escritor. Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil 2023**

El escritor Patxi Zubizarreta, Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil 2023 compartirá con el alumnado cómo es el proceso de creación de un libro. Hablará de los pasos que se dan en el proceso, desde la génesis de la idea hasta su publicación, con ejemplos concretos e imaginarios.
Le acompaña el músico Pello Ramírez.

Hizkuntza / Idioma: Euskera
Norentzat / Dirigido a:
Bigarren Hezkuntzako ikasleak
Estudiantes de secundaria

28–29/02 ASTEAZKENA, OSTEGUNA
MIÉRCOLES, JUEVES

TAILERRA / TALLER

## *Literatura itzultzen*
## Maialen Berasategi



**Maialen Berasategi**
—
**Itzultzailea**
**Traductora**

Maialen Berasategi itzultzailea eta zuzentzailea da Berria egunkarian. Tailer honetan literaturaren itzulpenaren auzi printzipal batzuk aztertuko dira, batetik zenbait itzultzailek eta idazlek gintza horri buruz esandakoak berrikusiz, eta bestetik jardun horretan arian-arian piztu ohi diren buruhauste, zailtasun eta ertzei erreparatuz, dena ere adibide erreal eta praktikoekin jantzita.

Maialen Berasategi es traductora y correctora en el periódico Berria. En este taller se analizarán algunas de las principales cuestiones que atañen a la traducción literaria, por un lado revisando los comentarios realizados por algunos traductores y escritores sobre esta labor, y por otro atendiendo a los quebraderos de cabeza, dificultades y aristas que van surgiendo en esta actividad, todo ello completado con ejemplos reales y prácticos.

Norentzat / Dirigido a:
Itzulpen-arloko publiko profesionala
Dirigido a público profesional de la traducción

29/02 OSTEGUNA
JUEVES

MASTER CLASS

## *Euskal literatura beste era batera*
## Josune Muñoz



Josune Muñoz euskal filologo eta ikerlariak Skolastika Servicios Literarios sortu zuen duela 12 urte, emakumeen kultura eta literatura aztertzeko eta zabaltzeko, metodologia propio batekin. 2022-23 ikasturtean, Batxilergoko euskal literaturari buruzko eskuliburu berriak sortzeko eskaera jaso zuen Skolastikak, eta horren prozesua eta emaitza azalduko ditu master class honetan.

La filóloga vasca e investigadora Josune Muñoz fundó hace 12 años Skolastika Servicios Literarios, para estudiar y difundir la cultura y la literatura de las mujeres, con una metodología propia. En el curso 2022-23, Skolastika recibió la solicitud de crear nuevos manuales de literatura vasca de Bachillerato, cuyo proceso y resultado trasladará en esta master class.

**Josune Muñoz**
—
**Euskal filologoa eta ikertzailea**
**Filóloga vasca e investigadora**

Hizkuntza / Idioma: Euskera
Norentzat / Dirigido a:
Bigarren Hezkuntzako ikasleak
Estudiantes de secundaria

01/03 OSTIRALA
VIERNES

MASTER CLASS

## *Peut-on tout dire quand on écrit pour les adolescent.es?*
## Hélène Vignal



Hélène Vignal idazlea gazte-literaturan espezializatuta dago, eta bere lanak Frantzian, Italian, Txinan, Korean eta Espainian argitaratuta daude. Master class honetan, Hélène Vignalek bere *Queen Kong* lanaren idazketari helduko dio, eta argitaratu ondoren publikoak egin dion harrerari ere bai. Liburua editore konprometitu batek argitaratu zuen, sexualitateari buruzko gaiak jorratzen dituen bilduma batean.

La escritora Hélène Vignal está especializada en literatura juvenil, sus obras están publicadas en Francia, Italia, China, Corea y España. En esta master class abordará la escritura de su obra *Queen Kong* y su recepción por parte del público después de su publicación. Este libro fue publicado por un editor comprometido en una colección que aborda cuestiones de sexualidad.

**Hélène Vignal**
—
**Idazlea**
**Escritora**

Hizkuntza / Idioma: Frantsesa, aldi bereko itzulpena gaztelaniara eta euskarara
Francés, con traducción simultánea a castellano y euskera
Norentzat / Dirigido a:
DBHko 4. mailatik aurrerako ikasleak
Alumnado a partir de 4º de ESO



## Sarreren salmenta
—
## Venta de entradas
—
## Ticket sales

**gutunzuria.azkunazentroa.eus**
**AZ Info**

Ingelesezko bertsioa
Versión en inglés
English Version

#GutunZuria2024
#GutunZuriaBilbao

LG BI 00275-2024

---

Organiza / Antolatzailea / Organized by

AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

---

Partner

bbk

Babesleak / Colaboran / Collaborators

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUT FRANÇAIS

Laguntzailea / Con el apoyo de / With the support of:

renfe
BAQUÉ

Hedabide laguntzaileak / Medios colaboradores / Media partners

radio 3
eitb
EL CORREO
CADENA SER
Deia